

UPV/EHUren LOKALAK ETA INSTALAZIOAK ERABILTZeko TARIFAK

Instalazio mota "A"	1. TARIFA Ordu solteak Prezioa orduko	2. TARIFA Egun osoa 8:00etatik 20:00etara	3. TARIFA Egun erdia 8:00 - 14:00 eta 14:00 - 20:00
Areto nagusiak eta antzekoak, 800 plazatatik beherakoak	210 €	1.895 €	949 €
800 plazatatik gorako areto nagusiak	348 €	2.736 €	1.369 €
Gradu-aretoak / Batzar-aretoak	183 €	1.369 €	685 €
Eraikinen atondoak	275 €	1.639 €	823 €
A motako ikasgelak (101 plazatakoa edo handiagoa)	110 €	983 €	494 €
B motako gelak (51-100 plaza)	73 €	656 €	329 €
C motako ikasgelak (50 plazatatik beherakoak)	36 €	364 €	183 €
Informatika-ikasgelak: 25 ordenagailu artekoak	238 €	2.097 €	1.049 €
25 ordenagailu baino gehiagokoak	275 €	2.497 €	1.250 €
Bideokonferentzia-gela/aretoa	583 €	5.213 €	2.608 €
Multimedia-gela/aretoa	73	2.298	1.149
Zuzenbide Fakultateko judizio-aretoa	183	1.369	685
Erakusketa-aretoa	275 €		
Ikuskizun-aretoa	583 €		
Atsedengunea	73 €		
"B"			
Gimnasioak	69 €	347 €	174 €
Gorputz adierazpeneko eta psikomotrizitateko gelak	35 €	139 €	88 €

Futbol 11ko zelaia	69 €	520 €	261 €
Futbol 7ko zelaia	35 €	261 €	131 €
Kiroldegi osoa (areto futboleko bi kantxa)	69 €	520 €	261 €
Kiroldegi erdia (areto futboleko zelai bat edo saskibaloiko kantxa bi edo boleiboleko kantxa bat)	35 €	261 €	131 €
Erabilera anitzeko aretoa	35 €	139 €	88 €
Tatamia	35 €	139 €	88 €
Muskulazio-gela	0	34 €	0
Eskalada-horma	0	34 €	0
"C"			
Audiolaba: 2, 3 edo 4. gela	104 €	928 €	464 €
Postprodukzioko audilab (1. lok.)	173 €	1.298 €	645 €
Bideolaba. Bideoaren postprodukzioko gela	104 €	928 €	464 €
Bideoa editatzeko gela (25 ordenagailu)	224 €	1.977 €	989 €
TBko platoa (Set 1-chroma key eta Set 2-ziklorama gortina)	173 €	1.289 €	645 €
TBko platoa (Set 1-chroma key eta Set 2-ziklorama gortina) eta kontrol-gela	224 €	1.977 €	989 €
Gesel Laborategia	224 €	1.977 €	989 €

Kanpo eremuak eta plazak	Eguneko
10 metro koadro arte	230 €
25 metro koadro arte	460 €
50 metro koadro arte	803 €
100 metro koadro arte	1.378 €
100 metro koadrotatik gora	1.838 €

Publizitate eta propaganda banatzea kanpoko eremu eta plazetan	Eguneko
- 5 banatzaile arte	306 €
- 6 eta 10 banatzaile artean	438 €
- 10 banatzaile baino gehiago	538 €

Tarifak aplikatzeko arauak:

"A" instalazio mota

Lokalak hiru modalitatearen arabera aloka daitezke: 1. tarifaren, 2. tarifaren eta 3. tarifaren arabera. Azken bietan (2 eta 3) gehiegizko denbora kobratzeko 1. tarifa aplikatuko zaio benetan emandako gehiegizko ordu kopuruari.

Ordu zatiak goitik biribilduko dira ordu erdia gainditu bada, edo behetik, ordu erdira heldu ez bada.

Tarifaren modalitatea ezin izango da aldatu lokalak erabiltzen hasi ondoren.

Tarifak lokalak instalatuta dituen ikus-entzunezko baliabideen eta espazioaren alokairua baino ez du barne hartzen, baina ez du beste sare zerbitzurik barne hartzen (bideo streaminga, bideokonferentzia, etab.). Zenbateko horri lokalaren garbitzeko lanaren kostua eta zerbitzua emateko behar diren langileena (atezaina, ikus-entzunezkoetako teknikaria, etab.) gehitu beharko zaio.

Fidantza kalkulatzeko (alokairuaren kostuaren % 25, BEZ barik) orduen estimazioa hartuko da kontratuaren hasieran.

Lokalak erabiltzen amaitutakoan, benetan erabilitako orduen datuak bidaliko dira eta faktura egingo da.

Multimedia-teknikarien laguntza behar izanez gero, lokala erreserbatu dela baieztatzeko, aldeztatik aurretik prest dagoela egiaztatu beharko da.

Informatika-gelak soilik alokatu ahal izango dira erabiltzaileek ekipamenduetara sartzeko beharrezkoak diren kredentzialak dituzten jardueretarako.

"B" instalazio mota

Instalazioetako aldagelak eta dutxak ez daude prestatuta gurpildun aulkia darabiltenentzat. Kirol anitzeko pista eta futbol zelaia, berriz, prestatuta daude horrelako pertsonentzat.

Instalazio hauek bakarrik aloka daitezke eskola orduetatik kanpo.

Honako hauek ez dira prezioan sartzen: muntaketa lanak, aparteko prestaketa lanak, kasuan kasuko kirol materiala.

Instalazioak alokatzeak ez du eskubiderik ematen bertan publizitatea jartzeko, sarrera kobratzeko edo saltokirik jartzeko.

Kirol anitzeko pista osoa alokatu arren, horrek ez du esan nahi eraikin osoa modu eksklusiboan alokatzen denik; aldageletan sartzen utzi beharko zaie beste erabiltzaileei, ez baitago besterik.

Kantxak, muskulazio gela, eskalada horma eta kiroldegiko ikasgelak bakoitza bere aldetik alokatu ahal izango dira. Instalazioa alokatzen denean argi eta garbi zehaztu beharko da zein elementu eta zein espazio alokatzen den.

Tatamian, gorputz adierazpeneko gelan eta psikomotrizitate gelan ez dago ez aldagelarik ez komunik. Instalaziook alokatzean kiroldegiko komunak eta aldagelak erabili nahi badira, instalazio biak garbitzeko lanak ordaindu beharko dira.

Instalazioak alokatzen badira jendearentzako orduetatik kanpo, atezain eta garbiketa zerbitzuen kostua ere ordaindu beharko da.

"C" instalazio mota

Instalazioak eskola orduetatik kanpo bakarrik alokatu ahalko dira, eta ezin izango zaie traba egin eskolei.

Tarifa horien barruan ez daude sartuta teknikarien laguntza, muntaketa lanak edo aparteko prestakuntza lanak.

Instalazioak alokatzeak ez du eskubiderik ematen bertan publizitatea jarri, sarrerarik kobratu edo saltokirik jartzeko.

Gune horien alokairua kudeatzeko, "Bizkaiko Campuseko Kanpoko eta Barneko Guneak Erabiltzeko Arautedia"ri jarraituko zaio, eta erreserba egiteko "Espazioak erreserbatu" izeneko aplikazioa erabili beharko da.

Horrez gain, eguneko 800 €-ko energia-gehigarria kobratuko da UPV/EHUn berogailua piztuta dagoen bitartean larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan egiten diren okupazioetarako. Osagarriaren zenbatekoa eguneko 6.500 €-koa izango da berokuntza-sistema orokorraren menpeko Bizkaiko Campuseko Erandioko zentroak eta/edo eraikinak okupatzeko: Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea, Zientzia eta Teknologia Fakultatea, Arte Ederren Fakultatea, Areto Nagusia, Liburutegia, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea eta I eta II ikasgelategiak.

POSTPRODUKZIO ETA GRABAZIORAKO ARETOEN ALOKAIRUA

Bideoaren postprodukzio edo ediziorako gelak eta grabazio ekipoak batera alokatzen badira, % 20ko deskontua egingo zaiei haien tarifei. Hauek dira ekipoen tarifak: